

1994tik Euskadiko pertsona gorren familiek

Edukiak:

→ Familiak

FEVAPAS datutan	2. orr.
FEVAPAS norekin	2. orr.
Hitzaldiak 2023	3. orr.

→ Haurrak - Gazteak

Sozializazio Jarduerak	4. orr.
------------------------	---------

→ Elkarte federatuak

ARANSKI	6. orr.
ULERTUZ	6. orr.
ASPASOR	7. orr.

→ Boluntarioak

8. orr.



Aranski

Gipuzkoa

aranski@aranski.org
www.aranski.org
943275055 / 655291841



Bizkaia

ulertuz@ulertuz.org
www.ulertuz.org
944440125 / 648922539



aspasor

Araba / Álava

info@aspasor.org
www.aspasor.org
945287392 / 605710026

Familiak

Fevapas datutan. Koordinazioa

504 FAMILIA bazkide/federatu / 510 pertsona gor / 1530 pertsona onuradun zuzen

2023an, FEVAPASek - pertsona gorren eta familien bizi-kalitatea hobetzeko eta atzean inor ez uzteko helburuarekin – elkarte federatuak **KOORDINATU** ditu familiei arreta eta laguntza emateko zeregin bateratu eta batuan.

Banakako **1.040**
kudeaketa baino
gehiago artatu dira

50 adingabe eta gaztek
parte hartu dute
sozializazio-jardueretan

60 pertsona baino
gehiago gurasoen
gogoeta-talde/eskoletan

FEVAPAS norekin

FEVAPASen lanean jarraitzen dugu ezarritako legeak bete daitezzen eta haur eta gazte gorrek, bai eta haien familiek ere, baldintza beretan jardun ahal izan dezaten bizitzako esparru guztietan. 2023an Eusko Jaurlaritzarekin:

Hezkuntza Sailean

Donostia Unibertsitate Ospitaleko (DUH)

Osasuna / Osakidetza. Harrera egin arte tematuko gara.

Gizarte Politika Sailean EEZM – Euskadiko elkarrizketa zibilerako mahaiko ezintasunen batzordea.

Justizia - 2022-2028ko Justizia Plan Estrategikoaren lantaldean.

Intereseko beste batzuk: EDEKA / Foru-aldundiak, udalak / gazteen eta hirugarren sektore sozialeko euskal behatokiak / boluntario-agentziak / Viasualfy / Medel y Gaes



→ Informazio gehiago erreferentziako zure elkarteetan.



50 pertsona baino gehiago izan dira FEVAPASEk antolatutako online hitzaldietan.

80 pertsona baino gehiago artatu dituzte psikologiaren eta osasun mentalaren arloko profesionalak.

50 pertsona zeinu-hizkuntzako ikastaro ez-formaletan.

200 pertsona baino gehiago izan dira elkarte federatuek antolatutako hitzaldi, jardunaldi eta abarretan.

Arlo ezberdinetako 50 profesional: gizarte-lana, psikologia, osasuna, logopedia, hezkuntza, arreta goiztiarra, administrazioa, komunikazioa, interpretazioa, etab.

Hitzaldiak 2023

- **Maiatzaren 16an**, 40 guraso, profesional eta beste batzuk parte hartu zuten online -¿Qué aporta la Teoría de la Mente en las Personas Sordas? Algunos apuntes para la intervención” hitzaldian. María Sotillo psikologian doktorea UAMen
- **Azaroaren 14an**, María Zalbideak , hezkuntza digitalean aditua eta joeren analista denak, gure seme-alaben sare sozialak –haiekin konektatu eta haiek babestu ahal izateko– ulertzearen eta ezagutzearen garrantziaz hitz egin zuen.

Hau ez da teknologia kontua, esan suen, haurrak bizitza errealean hezteaz ari gara. Balorazio orokorra oso positiboa izan da. Bide berean jarraitzera bultzatzen gaitu horrek.

Eskerrik asko denoi parte hartzeagatik.

Sevapas

SEME-ALABA DIGITALAK/ HIJXS DIGITALES

ULERTU, EZAGUTU, KONEKTATU, BABESTU / ENTENDER, CONOCER, CONECTAR, PROTEGER

Hau ez da teknologia. Haurrak bizitza errealean hezten ditu // Esto no va de tecnología. Va de educar a lxs niñxs en la vida real.

Haurrak eta gazteak

Maiatzaren 20an, larunbatean,

7 urtetik 13 urtera bitarteko 22 neska-mutil gor elkartu ziren Gasteizko CityJumpen. Parkeko jolasez gozatu zuten, eta bazkalondoan lankidetzaz, aurkezpen eta memoria jokoetan parte hartu zuten.

Lehendik elkar ezagutzen zuten haurrak eta gazteak gustura elkartu ziren. Lagun berriei oso harrera ona egin zieten.

Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, baina egun alaia izan zen.



Ekainaren 10ean, larunbatean,

18 gazte aritu ziren surfeari Zarautzen FEVAPESeko begiraleek lagunduta. Ordu eta erdian aritu ziren olatuaren bila eta oreka mantentzen saiatzen, eta goiz dibertigarria igaro zuten itsasoan. Bazkalondoan eta berriketan aritu ondoren, dinamika batzuen bidez elkar hobeto ezagutzeko aukera izan zuten.

17:00etan, egun biribila igarota, denak etxera.

Jardunaldiaren arrakastak markatzen digu jarraitu behar den bidea.





Azaroaren 11n, larunbatean,

FEVAPASEko 23 haur eta gazte elkartu ziren Donostian.

Hitzaldia, eztabaida eta dinamikak birziklatzen ikasteko eta erreferentziako pertsona gorak ezagutzeko.

Harremanak eta jakintza sustatzeko jolasek eta lankidetzajokoek birbildu zuten eguna.

Gauza asko egiteko gai gara, eta, elkarrekin bagaude, inor ez zaigu nagusituko.

Elkarte federatuak

Aransgi

2023an, AransGIk gazteentzat nahiz txikientzat sozializazio-jarduerak antolatzen jarraitu du, eta harrera bikaina izan dute bai familien aldetik bai parte-hartzaileen aldetik.



Ulertuz

“EDUCAR CON APEGO SEGURO” TAILERRA

ULERTUZ elkarteko familia batzuen eskaerari erantzunez, azaroaren 18an *atxikimendu seguruan oinarrituta hezten ikasteko* tailer bat egitea erabaki zen.

Tailerra, beste batzuetan bezala, gurekin lanean aspalditik ari den Yolanda Charte psikologoak zuzendu zuen. Hiru orduko iraupena izan zuen tailer hori Deustuko Bidarte udal-zentroko instalazioetan egin zen.

Oso dinamikoa izan zen jardueran familiek euren zalantzak eta kezak azaltzeko eta argitzeko aukera izan zuten. Hemendik eskerrak egin nahi dizkiogu Yolandari egindako lan bikainarengatik, beti ahalegintzen baita gai guztiak gertutasunez eta ikuspegi praktiko batetik azaltzen.



Ulertuz

Aspasor

ARRETA PSIKOLOGIKOA / LAGUNTZA EMOZIONALA PERTSONA GORRENTZAT ETA HORIEN FAMILIENTZAT

2023an, gaiarekin lotutako proposamen batzuk egin ondoren, ASPASORen Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen laguntza psikologikoa eskatzea eta planteatzea entzumen-desgaitasuna duten pertsonen eta horien familiei arlo horretan erantzuna emateko. Horretarako, pertsona gorren tratamenduan esperientzia duen eta zeinu-hizkuntza ezagutzen duen psikologo batekin, OSAGOREko Amayarekin, harremanetan jarri ginen. Hilean bitan etortzen da Gasteizera, eta hemendik ematen da eskatutako arreta.

Taldeko saioak: larunbat batean familiekin eta beste batean neska-mutilekin, batez ere gazteekin. Taldeko saioen ondoren, banakako eskaerei erantzuten zaie. Esperientziaren amaierako analisia egitea eta datorren urtera begira hobetzeko eta jarraipena emateko planteamendua egitea falta da. Ikusiko dugu 2024an jarraitzeko finantzazioa zertan den.

The poster features the logos of 'aspasor' (with the text 'Aspasor Gorri Gorri eta Laguntza Eragilea' and 'Proiektua: Pertsona Sordak eta Laguntza Eragilea') and 'OSAGOR Psicología'. The main title is 'REUNIÓN INFORMATIVA APOYO PSICOLÓGICO PARA PERSONAS SORDAS Y FAMILIAS'. The speaker is 'Amaia Ortiz de Jiménez, Experta en Intervención con Personas Sordas, Psicoterapia en Lengua de Signos'. The event is on 'Sábado 27 de mayo' at 'Centro Cívico Arana' from '11:30 a 13:00'. A circular graphic shows a group of diverse people. At the bottom, logos for 'ARABAKO FORU ALDUNDIA', 'Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social', 'DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA', 'VITORIA GASTEIZ green capital', and 'Fundación ONCE' are displayed.



Boluntarioak

Martxoaren 11n eta irailaren 23an, lau orduko jardunaldietan, boluntarioak, FEVAPASEko aisialdiko begiraleak, elkartu dira formakuntza egiteko, programatzeko eta, besteak beste, urte osoan zehar FEVAPASEko haurrentzat eta gazteentzat antolatzen diren sozializazio-jarduerak irisgarriagoak izateko.

Bi egun trinko izan dira, taldea ezinbestekoa baita federazioaren martxa onerako.



JORNADA DIDÁCTICA / JARDUNALDI DIDAKTIKOA
Monitorxs-Voluntarixs / Begirale - Boluntarioak

VOLUNTARIADO EN ACCIÓN
BOLUNTARIOTZA MARTXAN

11.03.23
23.03.11 10:00-14:00h

ARANSKI - Donostia



IRATI AZKARATE BLESA
Monitora titulada y con años de experiencia
Begirale tituladuna eta urteetako esperientzia duona



JORNADA DIDÁCTICA / JARDUNALDI DIDAKTIKOA
Monitorxs-Voluntarixs / Begirale - Boluntarioak

VOLUNTARIADO EN FORMACIÓN
BOLUNTARIOTZA PRESTAKUNTZA

23.09.23
23.09.30 10:30-14:30h

ARANSKI - Donostia



PROFESIONAL DE URTXINTXA ESKOLA
URTXINTXA ESKOLAKO PROFESIONALA
Experta en tiempo libre educativo y discapacidad auditiva
Hezkuntza-aisialdiko aditua eta entzumen-degaitasuna

